

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Behin betiko onartzea ibilgailuak sartzegatik eta aparkalekua gordetzeagatik aprobetxamendu bereziari buruzko tasa ordaindu behar dutenen 2016ko errolda**

Nik, Josune Irabien Marigortak, Amurrioko (Araba) Udaleko alkate naizen honek,

Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2016ko irailaren 29ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ibilgailuak sartzegatik eta aparkalekua gordetzeagatik aprobetxamendu bereziari buruzko tasa ordaindu behar dutenen 2016ko erroldari. Onarpen erabaki horren berri (16310C2331 espedientea) 2016ko urriaren 14ko ALHAOn (114. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabakia behin betiko bihurtu eta jendaurrean jartzen da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98.3 artikuluan xedatutako ondorioetarako.

2016ko abenduaren 1etik 2017ko urtarrilaren 31ra (biak barne) arteko egun baliodunetan ordaindu ahal izango da borondatezko epean ibilgailuak sartzegatik eta aparkalekua gordetzeagatik aprobetxamendu bereziari buruzko aurtengo tasa.

Tasa hori ordaindu behar dutenek Laboral Kutxak Amurrion dituen bulegoetan (Mendiko kalea, 1) ordaindu ahal izango dute zerga zorra, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 10:30era, adierazi den epean.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, bat etorri indarrean dagoen Zerga bilketarako Araudi orokorrean ezarritako xedapenekin; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko azaroaren 9a

*Alkatea*

**JOSUNE IRABIEN MARIGORTA**